

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martina Olasagasti Martikorena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1913-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Bentaberri baserrian jaio zen, baina Iruin baserrira joan zen bizitzera umetan. Gurasoak igeldotarrak zituen biak. Aitak harrobian egiten zuen lana. Zortzi senide ziren. Gutxi joan zen plazako eskolara, etxean beti izaten zelako lana; euskaraz ikasten zuten, baita doktrina ere. Neska koskorra zela Antiguara joaten zen esnea partitzera. 14 urterekin neskame joan zen Aginaga aldeko baserri batera, eta 18rekin Hernaniko Zinkoenea tabernara. Hantxe ezagutu zuen bere senarra izango zena, hernaniarra. Igeldora ezkondu ziren, eta bi seme izan zituzten. Azken urteetan Grosen bizi zen Martina. Jexux semea elkarrizketan egon zen; haren ahotsa entzuten da tarteka.

Zintak

DON-118

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-05-26
- **Iraupena:** 123 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Igeldoko harrobiak eta harria

- **Erref:** DON-118/004
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Aitak harrobian egiten zuen lana. Harrobietako lana. Biriketako gaitza. 65 urterekin hil zen aita. Iriarte baserria.

2. Eskolan euskaraz egiten zuten

- **Erref:** DON-118/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskolara gutxi joan zen. Igeldoko plazan. Luisa zen maistra. Euskaraz ikasi zuten. Lana zen inportantea. Mutilak eta neskak aparte. Umetako jolasak: txingoa, sokasalto. Kilkerak tomate potoetan.

3. Umetatik baserrian lanean

- **Erref:** DON-118/006
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:07:39. **Bukatu:** 00:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Umetako lanak, baserrian. Itaurrean. Ogia eraman. Behiak. Esnea Antiguara eramaten zuten. Oinez, astoarekin. Zestoak. Bideak hondatu egiten ziren. Alpagatak. Soinekoa eta mantala.</p>

Transkripzioa

-Eta umetan ze lan iten ziran? Itaurrian?
-Umetan? Bai, itaulian.
-Itaulian?
-Itaulian, bai. Ta Antigua ta herrita ogiya eaman ta /da/... joanda oiñez ta... holakuak.
-Holakuak? Eta zuek, e, zer zenuten baserriyan? Behirik-eta bazenuten?
-Behiyak bai, bai.
-Asko?
-Ez, asko ez, baiño lau o bost o. Bai.
-Eta esnia saldu iten zenuten?
-Esnia, bai.
-Nora eramaten zenuten?
-Antigua.
-Antiguara...
-Bai.
-Eta zein juten zan esniakin? Ama?
-Ama're bai ta ni igual ta /da/...
-Eta nola? Oiñez ala...?
-Oiñez.
-Oiñez?

-Bai, bai.

-Eta ze, marmita eskuan hartuta?

-E, ez. Gu astuakin.

-Astuakin?

-Bai.

-Eta nola preparatzen zan astua, marmitak-eta eramateko?

-Xesto batzuk izaten zituen, bi aldetan, eta han sartu marmitak eta...

-Eta etxez etxe, Antiguan?

-Bai, han ta plazan´e bai.

-Plazan´e bai?

-Bai.

-Plazan nun, han Antiguan bertan?

-Bai, Antiguon, elizen onduan.

-Elizan onduan...

-Plaza bat.

-Eta jende asko juten zan Igeldotik hara?

-Bai, Donostia gehiyo etortzen zan, baiño bai, bai.

-Eta danak astuakin ala zaldi karruan...

-Astuakin, astuakin.

-Astuakin gehiyenian.

-Bai.

-Bidia ze zeon, geizki ala...? Bidiak, lengo biriak ez zian izango oainguak bezelakuak...

-Ez, baiño kamiyua zan, e. Txarragua, e, kamiyo txarra.

-Txarra.

-Bai.

-Harritxintxarra zegon ala...?

-Bai, gu... harriya ekartzen puskatzen zuen ta /da/. Harriya ekartzen puskatu.

-Aaaa, harriya, harriyakin...

-Harriya ekartzen, beti karruakin, beti karruakin, puskatu iten zuen. Baiño ez zian /etzian/ hain txarrak, Igeldotik Donostia.

-Eta zuek nola juten ziñaten jantzita, esnia saltzera juteko? Ze oiñetakokin-ta?

-Gehiyena alpargeta ibiltze(n) gendun.

-Alpargeta?

-Bai.

-Eta soiñe... gona?

-Soiñekua, bai.

-Eta mantalakin ala ez, hori...?

-Bai. Mantalakin, baiño txikiyaguak giñanian ez, batez. Baiño gero pixkat hazitakuan mantala.

-Eta buruan zapirik eramateko ohituarik edo bazeon?

-Ez. Bueno, ohitura bazeon, baiño ebiya zanian ta /da/ hola. Bestela ez.

-Edo euzkiya zeonian baratzian eta ibiltzeko...

-Ordun bai.

-Orduan bai?

-Ez beztutzeatik.

-Ez beztutzeatik? Orduan e... nahiyo, nahiyo azal txuriya?

-Zuriya.

-Bai, e?

-Bai, oain bezela ez.

-Oain bezela ez. Oain alderantziz.

4. Baserriko bizimodua

- **Erref:** DON-118/007
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baratzean zer zuten azaltzen du. Bost neska eta hiru mutil ziren. Emakumeek orain ez dutela lanik egiten dio. Beheko sua. Laratza. Neskamea. Ogia erosi egiten zuten. Lurrezko lapikoak. Babarruna urte guztian, igandean garbantzua. Hasieran denak batetik jaten zuten.

5. Baserriko otorduak

- **Erref:** DON-118/008
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:14:18. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Udan oso goiz jaikitzen ziren. Gosaltzeko, kafesnea. Bazkaria. Postrerik ez. Sagardoa egiten zen. Merienda, txokolatea. Afaria. Arraina. Antxoia asko izaten zen.

6. Arroketan lapa bila

- **Erref:** DON-118/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arroketara lapa bila. Jende asko joaten zen. Lanpernetan ere ibili zen ama. Lapak saldu egiten zituzten, arrandegian. Igeri ez. Mutilak gutxi ibiltzen ziren.

7. Pitxerra buru gainean

- **Erref:** DON-118/010
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Dutxarik ez. Iturrian garbitzen ziren, arroketan. Igeldon errekarik ez. Kanilako urik ez zuten lehen, iturrira bila. Buru gainean. Gobara nola egiten zen. Kuela, ur beroarekin. Sutako hautsa. Pardela. Burutea.</p>

Transkripzioa

-Eta lehen ez zan egoten dutxarik komunetan.
-E?
-Etxetan lehen dutxarik-eta ez zala egoten.
-Ez, ez zeon /etzeon/ dutxarik.
-Nola, nola iten zenuten garbitzeko?
-Nola? Erropak garbitzeko iturria jun ta /da/... buf, hala. Arroka juten giñenian arrokan ta /da/...
-Eta erreka, errekarik?
-Ez, Igeldon ez da /ezta/ errekaik. Ez. Iturriyak pai.
-Iturriyak.
-Bai.
-Eta zuk beti ezautu dezu etxian ura ala...? Kanillako ura?
-Ez, ez. Guk beti ur... preskua ura.
-Zuek beti iturrira juten ziñaten ur billa?
-Bai.
-Eta nola ekartzen zenuten ura bueltan?
-Ontzin hartu, burun jarri ta ala. Oain hor ibiltzen diran “tercer mundo” o zer dia hoik? Hola.
-Buru gaiñian jarrita, orduan? Pitxerra ala...?
-Hola jarri ta burun zea bat, bueltako zea bat in, eta hari jarri, eta bate eutsi gabe. Ta batzutan birian bota, ta etxea.
-Eta urruti zeon iturriya ala gertu?
-Ez dakit pa nik, hamar bat miñutu o.
-Bueno, ba...
-Ordulaurden bat eo.
-...bazeon bidia. Eta erropa garbitzera ere iturrira?
-Bai.
-Eta... Lehen, e, emakume batzuk gobara iten ibiltzen ziran.
-Bai, asko. Asko.
-Abera... bueno, Antiguako etxetarako eta...
-Han, Donostikua, Donostiko aberatsak, erropa hoiyek ematen zuen.
-Eta hori, gobara nola, nola iten zan?
-Nola ein? Aurrena busti, jaboia eman, ta geo e(g)osi, kuela, hola barrikak sagardua eukitzeko bezelako batzuk, eta han e(g)osi, eta geo iturria berriz ´e eaman, eta aklaratu.
-Eta hori, kuelan hor egosi, nola, ur berua botatzen zitzaion?
-Ura, bai. Ura berua bota.
-Eta tapatuta euki behar zan ala...?
-Bai, tapatuta pixkat euki, ta...
-Eta zuek etxian hori iten zenuten, ala...?
-Bai.
-Bai?

-Bai, etxeko erroa ´re hala ite(n) zan ordun. Asko. Bai.
 -Eta ze jaboia edo ze erabiltzen zan?
 -A, jaboia beti Chimbo ta holakuak, bai.
 -Eta sutako hautsa erabiltzia... hori ezautu dezu?
 -Hua ´re botatzen ziyuen.
 -Bai?
 -Sutako hautsa ´re, bai.
 -Eta zertako zan hori?
 -Nik ez dakit hua zeatik botatzen ziyen.
 -Txuritu-o ingo zun?
 -Bai. Sutako hautsana, bai.
 -Eta gero zenbat denbora euki behar zan hori egosten ala beratzen?
 -Eosten eukitzen zuen bastante denboan, ur berua botaez. Ura berua jaboiyakin-ta botaez. Eukitzen zuen, bestiak hautsak botata, ta hola.
 -Baiña hurrengo egunerarte eta bai, hainbeste denbora ala...?
 -Bai igual, hurrungo egunerarte igual.
 -Bai?
 -Bai.
 -Eta gero hori, aklatu-eta iturriyan.
 -Bai, aklatu eta geo euzkitan jarri.
 -Ta nola eramaten zan iturriraiño?
 -Burun!
 -Burun? Ta ze, hola ontzi haundi baten sartuta ala...?
 -Hola ez, maindire batian eo hola, zea, fardela inda.
 -Pardela inda?
 -Bai.
 -Orduan pardela in ta...
 -Burun hartu ta...
 -Eta lehen esan dezun hori, buruan jartzen zana bueltaka, horrek izenik bazun?
 -Burutia.
 -Burutia?
 -Bai.
 -Burutia. Eta hori, hori emakumien lana izango zan, ezta? Erroa garbitzia.
 -Hoixe! Gizonak ez zuen /etzuen/ iten.

8. Etxean egindako erratza eta koltxoiak

- **Erref:** DON-118/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:26:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Etxea garbitzea, emakumearen lana. Eskoba eta erratza. Menda-belarra, sortak eginda. Artilezko koltxoiak. Urtean behin jo, harrotzeko. Eskolan arratsaldetan laboreak.</p>

9. Dotrina ondo ikasi behar

- **Erref:** DON-118/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:26:18. **Bukatu:** 00:28:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina ondo ikasi behar zen Jaunartzea egiteko. Kredoa, Salbea... Ezkontzeko ere galdetu egin zion apaizak. Don Basilio. Dotrina eskolan eta parrobian, bietan.

10. Kinkea, farola eta plantxa

- **Erref:** DON-118/014
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Argia gaztea zela jarri zuten. Aurretik, petrolioeko kinkea. Farola, kanpora ateratzeko. Lehengo plantxak. Almidoiarekin plantxatzea. Uretan jarri, eta alkandora lepoa han sartu. Gobara.</p>

11. Atsolorrak eta emaginak

- **Erref:** DON-118/015
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Umea jaiotzen zenean, atsolorrak. Emakumeak, meriendatzera. Oparia. Ganbaran. Aldamenekoak egiten zituen emagin lanak; erditze txarretan medikuari deitzen zioten. Jaioberriari faja jartzen zitzaion.</p>

12. Teila buruan jarrita, etxetik irteteko

- **Erref:** DON-118/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Bataioa, jaio eta segituan. Erditzean laguntzen zuenak eramaten zuen haurra elizara. Amak ezin etxetik irten. Teila buruan jarrita. Elizan sartzea. Ogia eta kandela.</p>

Transkripzioa

-Eta bataiatu iten zan jaio eta gutxira, ezta?
-Bai, seitun!
-Seitun? Eta zergatik ba hain azkar?
-...
-Bildurra zeon umia...
-Umia hiltzeko bildurra zeon. Ta bataiatu ite(n) zan. Bataiyatu, egualdi txarra bazeon ona bazeon, bataiyatu in behar zan. Ordun apaizak ez zun / etzun/ uzten bataitu be.
-Eta nork eramaten zun umia elizara?
-Han zeon partuan laundu ziyonak eamaten zun.
-Harek?
-Bai, umia.
-Orduan ama ez zan, ez zan juten bataiora...
-Ez. Ez, artian ama ohiyian zeon!
-Klaro. Eta gero, denbora baten amak ezin zun /ezintzun/ etxetik irten...
-Bai, ez takit zenbat zian, hamabi e(g)unea o hamabost eo. Atea bihar baldin bazenun, teilla burun jarrita!
-Hori ezautu dezu zuk?
-Teilla.
-Bai, e? Hori zuk entzun in dezu ala ikusi ere bai?
-Bai, ikusi´re bai.
-Ikusi´re bai, teilla buruan jartzia etxetik irteteko?
-Bai. Baiño danek ez zuen /etzuen/ jartzen, e!
-Ez? Eta hori ze, hola teillatu, teillapian eoteko?
-Bire askuan ez zien /etzien/ jungo. Ura ekartzea ta hola juten zian. Bai.
-Eta gero, in behar izaten zan "elizan sartzia" edo...
-A, bai. Baita´re, hori´re bai handik... sendatzen zanian, ordun elizan sartzea.
-Eta nola izaten zan hori, elizan sartzia? Apaizak bedeinkaziyua ematen zun?
-Apaizak ematen zun. Ogiya ta kandela-ta eamaten genixkiyon. Ta ez takit dirua ematen zitzaiyen, oain ez naiz goatzen. Hoi ez takit.
-Eta hori eliza kanpuan ematen zan bedenkaziyua? Sartu aurretik ala...?
-Sartu aurretik.
-Sartu aurretik...
-Bai.
-Eta belauniko-edo jarri behar izaten zan edo...?
-Ez, eliza sartutakuan bai.
-Eliza sartutakuan...
-Bai.

13. Gaubeilak eta mantuak

- **Erref:** DON-118/017
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:40:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Elizako sepulturak, egoteko tokiak. Kandela hilberria gogoratzeko. Gaubeila. Arrosarioa. Erramu bedeinkatua etxean izaten zen. Hilkutxa bizkarrean. Elizbideak. Mantua jartzen zuten hiru emakumek. Mantila buruan beti.</p>

Transkripzioa

-Eta norbait hiltzen zanian, e, elizan etxe bakoitzak bazeukan bere... tokiya edo?

-Bai. Sepultura.

-Sepultura? Baserri bakoitzak beria zeukan?

-Bai. Eoteko tokiya.

-Eoteko tokiya...

-Bai.

-Eta han jartzen zan argirik edo...?

-Bai, kandela.

-Kandela, eta trapu beltzen bat-edo bai?

-Ez, trapu beltzik ez. Batzuk bai, batzuk, baiño... ez.

-Eta norbait hiltzen zanian, etxian... e, jendia hara jutzen zan, ezta, gaua pasatzera edo?

-Bai, gaua pasatzea jentia, ta errosaiyua esan ta /da/ gaua pasa.

-Eta ze jutzen zian, ze jende? Ezagunak, inguruko baserriyetakuak izaten ziran?

-Bai.

-Gaztiak ala... danetik?

-Bai, gaztiak gehiyo, ta zarrak´e bai, e.

-Gaztiak. Orduan, errosaiyua esan eta hantxe...

-Hantxe eon!

-Ta jan eta edan ere ingo zan, hainbeste denboran.

-Bai. Gazta ta ogiyo ta ardua ta.

-Eta erramua... eta erramua edo zerbait eoten zan? Ur bedeinkatua edo...?

-Bai, hoik denak eiten zian.

-Ze iten zan erramuakin?

-Erramua bedeinkatu iten zan ta geo etxian euki, ta trumoiak eta jotzen zitunian ta /da/, piztu... suba in harekin ta... tximistakin ta /da/ ta...

-Eta norbait hiltzen zanian ere bai, ur bedeinkatuan sartzen zan erramua?

-Bai. Ur bedeinkatuba, ta aitaren in ta /da/... sartu eliza.

-Eta elizara nola eramaten zan, e... kutxa? Bizkarrian?

-Hildakua?

-Bai.

-Bai.

-Bizkarrian. Eta iten zan... bazeon bide berezirik? Eliz biderik edo hilkutxak eramateko? Handik jun beharra elizara?

-Ez. Hola bereziyak... bueno, esaten zuen, bai, holako biretik jun bihar da, ta halakotik eta... bai.

-Eta bidian geldiunerik iten zan? Nunbaiten, mahain baten gaiñian jarri kutxa, ta holakorik?

-Bai, basarri urrutikuetan bai. Bai. Nekatu iten zian ta /da/.

-Eta otoitzik iten zan bidian, holakotan?

-E?

-Holakotan, otoitzik-edo iten zan bidian? Errezorik?
 -Ez zait /etzait/ goatzen oain. Ez zait...
 -Klaro, zuek gertu... zuek gertu zeundeten, ezta?
 -Bai. Hoi ez zait /etzait/ goatzen.
 -Eta e... hildakuan atzetik juten zian, beltzez jantzita eta...
 -Bai.
 -Bazeuden hor emakumiak kaparen bat edo...
 -A, bai.
 -Nola, nola zan hori?
 -Hori, mantuba.
 -Mantuba?
 -Bai. Jartzen zien hoik, bai. Hori ezautu det nik, bueno... bai.
 -Eta hori zeñek, zenbatek? Emakume guztiyak juten zian mantuakin?
 -Ez, hiru.
 -Hiru...
 -Bai.
 -Eta ze izaten ziran, hildakuan gertuko...
 -Pariente haundiyenak.
 -Gertukuenak?
 -Bai.
 -Eta e... bestela, elizarako-ta jartzen zan zerbait buruan? Normalian, hola, beti?
 -Mantilla.
 -Mantilla?
 -Bai.
 -Elizara beti mantillakin?
 -Beti.
 -Beti?
 -Ni ezkondu´re hala in nitzan. Hor dago. Mantillakin.
 -Ta mantilla beltza?
 -Bai.
 -Hori, orduan, elizarako beti. Eta elizan ondo tapatuta egon beharko zan.
 Ez, e...
 -Hola ez!
 -Hola ez? Beso...
 -Honeaiño.
 -Bai, e? Eskumuturreraíño? Eta paparra ere tapatuta?
 -A, bai.

14. Mutilekin dantza egitea debekatua

- **Erref:** DON-118/018
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:43:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Kongregaziokoa izan zen, Mariaren alabak. Hilero. Errenkan jarrita. Zinta urdina. Toki batzuetan ez zen libre dantza egitea, apaizak ez zuen uzten. Festetan, Añorgara, San Estebanera...

15. Neskame Aginagako baserri batera

- **Erref:** DON-118/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Aginagara joan zen neskame, 14 urterekin. Han egiten zituen lanak. Esnea partitzen zuen. Zumalakarregi kaleko etxe batera joaten zen. 16 litroko marmita, buru gainean. Igogailurik gabe. Lehen normala zen neskame joatea.

Transkripzioa

-Hori Agiñako partian.

-Agiñako partian?

-Bai. Ta juten nitzan, eta partitzen nun esnia. Ta ez takit badakizun Antiguan etxe haundi bat bado hor, zea, gasolina ta saltzen duena. Oain ez do /ezto/ gasolinaik, ezta?

-Semea: Ez, Zumalakarregi ta taxisak dauden lekuban, etxi hoi.

-Tunela pasata!

-Semia: Zumalakarregi "número uno".

-Tunela pasata. Eta ordun, ordun bukatu zan etxi hori.

-Orduan, orduan bukatu zan.

-Eta hara eamaten nun nik esnia. Hamasei litroko marmita eamaten nun!

-Buru gaiñian?

-Bai. Ta /da/ ordun ez zun /etzun/ astzensoreik, eta baitu, ez takit, sei o zazpi pixu. Izango itu. Ahaztuba dakat, aspaldian ez det ikusi ta...

-Jesus. Eta beti buru gaiñian? Eskillarak igotzen'e buru gaiñian?

-Bai ba! Eskun ezin eaman, ta /da/ buru gaiñian. Ta eun batin in zitzaidan eroi! Eskillaretan. Ze komeriyak! Ta artian ttikiya nitzan ta /da/. Hamalau urte.

-Hamalau urtekin orduan baserri hortara, eta han ze lan iten zenitun? Esnia, esnia partitu ta... gero?

-Gero ez nun lan asko iten. Nekatuta-ta juten nitzan ta /da/.

-Klaro...

-Bai.

-Ta han, umiak zaindu ta hola ere bai, ala...?

-E?

-Umiak-eta bazituzten han?

-Bai, bai.

-Eta umezain ibiltzen ziñan?

-Bai, umiak, e, basarrin beaiyen gisan ibiltzen dia, e! Oilluak pezela.

-Ez oain bezela...

-Oain bezela? Jesus. Oain bezela! Oain gehiyegi da, nei iruitzen zait neri. Oain ezer ez.

-Ta lehen, neskame, asko juten ziran, ezta? Neska asko juten ziran...

-Bai, oain juten dan bezela lanea, ordun, ordun juten zala ba... lo ein, jan, dana bertan. Iten zan, lau orduako ez zala /etzala/ juten. Ordutako...

-Klaro, orduan jun ta /da/ bertan bizi... ez, denbora baterako...

-Bai.

-Eta oso umetatik. Hamaika urtekin-ta ere bai, askotan, ezta?

-Bai. Oso umetatik.
-Zuk zenbat denbora in zenun han, e, neskame?
-Han, asko-asko ez nun in. Han asko-asko ez. Baiño beste tokin´e hola zeon. Beste tokia junda´re.
-Klaro... Eta gero handik etxera bueltatu ziñan?
-Bai, baiño berriz´e bela jun nitzan noabaitera.
-Bai?
-Bai.
-Orduan, toki batian baiño gehiyotan ibili ziñan.
-Bai, tokik toki.

16. Hernaniko Zinkoenea tabernan lanean

- **Erref:** DON-118/023
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Hernanin Zinkoenea tabernan ibili zen lanean. Sukaldean, oheak egiten, barran... denetik. Soldata txikia. Jatekoa ere ematen zuten. Babarrunak, azak odolkiekin, gisatua, arkume errea... Kaxuelak. Emakumerik ez tabernan.

17. Gaur egungo emakumea, gaiztotuta

- **Erref:** DON-118/024
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:52:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Emakumea gaiztotu egin dela dio, harrotu. Gizona mendean hartu nahi duela uste du. Gizona umezain ibiltzea ez zaio gustatzen.

18. Hernaniko Zinkoenea tabernan lanean II

- **Erref:** DON-118/026
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Hernanin tabernan lanean zebilela, jaietan beti lana. Aste barruan arratsalde bat libratzen zuten. Hiru neska ziren.

19. "Habla en cristiano"

- **Erref:** DON-118/028
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:55:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Bretxan berdura saltzen ari zela, Caceresko emakume batek gaztelaniaz egiteko esan zion. Guardiak han zeuden. Umeak zirenean dena euskaraz egiten zuten, baina gero ez zuten uzten.

20. Gerra garaian, nobioa soldadu

- **Erref:** DON-118/032
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Senarra soldadu, nobioak zirela. Non ibili zen: Bilbo, Bartzelona... Eskutitzak bidean galtzen ziren. Madrileraino iritsi ziren. Hil egin zela zabaldu zen.

21. Errazionamendu garaia

- **Erref:** DON-118/035
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:04:58. **Bukatu:** 01:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendua, gerra ondoren. Igeldora ezkondu zen, baina senarra Hernanikoa zen. Diru asko behar zen: azukreak hogei duro. Kontrabandoa. Ogia. Errotara, Orioko partean.

22. Txikitako "engainuak"

- **Erref:** DON-118/043
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:14:17. **Bukatu:** 01:15:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Umetako "engainuak". Sorginak. Sacamantecas. Umeak Paristik, aireplanoan.

23. Umeei ez zieten ezer kontatzen

- **Erref:** DON-118/045
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:16:15. **Bukatu:** 01:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Hilerokoa jaitsi aurretik amak esplikaziorik ez; gero, bai. Dena bekatu zen. Ezkondu eta gero ere apaizak sexu kontuei buruz galdetzen zuen.</p>

24. Errogatibak eta misioak

- **Erref:** DON-118/047
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:19:00. **Bukatu:** 01:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Errogatibak. Euria egiteko. Plazari bueltak, letaniak. Misioak. Sermoi beldurgarriak. Moja joandakoak.

25. Ezkondu, zuriz jantzita ez

- **Erref:** DON-118/049
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:20:45. **Bukatu:** 01:22:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Dotrina ikastea inportantea zen. Jaunartze txikia eta handia. Zuriz jantzita batzuek. Urdinez joan zen. Erretratua. Lehen, ezkondu ere soineko ilunez egiten ziren. Orain zuriz jantztea ez zaio ondo iruditzen.

26. Igeldoko lehenengo autoak eta telefonoak

- **Erref:** DON-118/052
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:24:02. **Bukatu:** 01:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Igeldoko gizon bati gertatu zitzaiona, autoa ikusi zuenean korrika alde egin zuela. Berak ezkontza batean ikusi zuen lehen aldiz. Medikua zaldiz ibiltzen zen, eta oinez. Telefonoa.</p>

27. Xesterak buru gainean

- **Erref:** DON-118/054
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:29:03. **Bukatu:** 01:29:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Xesteretan esneak eramaten zituzten, buru gainean; bueltan, enkarguak. Egurra ere bai.

Transkripzioa

-Xestera. Xestera hartan eamaten zian esniak, marmidak bi o hiru o, zunak, burun hartuta. Eta geo etxeakun ekartzen zian /ekartzentzian/ enkarguk. Ogiya dala, bihar dien gauzak, etxea berriz burun hartuta. Hortan zian... nola esan da "Tercer Mundo" o? Igual-igual-igual-igual ibiltze(n) zan jendia. Igual. Egurra burun hartuta ta´de ibiltze(n) dia, tripa haundi batzuk ba?

-Bai.

-E? Egurra burun duela.

-Bai.

-Igual!

-Eta bizkarrian, egurra-eta bizkarrian ez zan hartzen?

-Burun nekatzian, bizkarrea bota! Ta bizkarrian. Igual-igual-igual ibiltze(n) zian.

28. Tranbia Tolosaraino

- **Erref:** DON-118/056
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:30:21. **Bukatu:** 01:32:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Gizonezkoen janzkera. Galtzerdiak egiten zituzten, haria ekarrita. Baserriko tresnak ferietan erosten zituzten. Tranbia Tolosaraino.</p>

29. Ezkontza-gurdiarekin

- **Erref:** DON-118/059
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 01:36:13. **Bukatu:** 01:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Etume baserriko ezkontza-gurdia. Gurdian zer zeraman. Idiak dotore. Soinua ateratzen zuen. Baserrietan gazta eta ardoa edaten zuten. Ezkontza, goizeko zazpitan; gosaria eta bazkaria.</p>

Transkripzioa

-Eta zuk ezautu dezu arreo. Gurdi... ezkontzako gurdiya eta...

-Bai.

-Bai?

-Ezautu (d)et. Eta gaiñea nere ezaun batek, ikusi (di)yot.

-Eta ze baserrikakua zan edo...?

-Ze basarrikakua zan... Zan Etume. Etume.

-Etume?

-Bai. Gaur "villak" dia han, gaur ez do /ezto/ basarriya. Gaur villak. Baiño e, gu eliza jute(n) giñan bezpereta. Bezperak. Eta bezperetatik atea, eta jende asko don garaiyan pasatzen zan zea, pasa zan. Eta han eaman zituzten gurdiyan ba danak, gauza guztik. Basarriko gauza guztik. Eta geo zea, ohiyak eta, zea, kuartuan bihar dian gauzak.

-Gurdiyan?

-Bai.

-Koltxoia eta danak?

-Danak. Eta umientzako siheska ´re bai. Dana.

-Eta maindiriak ere bai?

-Dana konpleto. Maindiriak guk ez giñun ikusi, baiño han jungo zian!

-Klaro.

-Bai.

-Eta gurdi baten... dana... ikusi iten zan, ez?

-Bai.

-Eta gurdiyan atzetik juten zian ala...?

-E?

-Gurdiyan atzetik juten ziran?

-Gurdiyan atzetikan juten zian /jutentzian/ ba ez takit, nobiyuak juten zian eo zeak juten zien. Eamaten zituen iriyak dotore-dotore. Eamaten zituen: kopetian eamaten dute ba, morlakin ta, dotore-dotore. Ta bizkarrian eamaten zuen manta, morlak jarrita. Oso dotore eamaten zituen.

-Semea: Beste gauz bat falta zaizu esatia, ama. Soiñuik ez zun /etzun/ ateatzen?

-Soiñuba ere bai. Soiñua ere ateatzen zun hola: txirrirriñ, hola. Ta bazekizun bazatorrela. Urrutitik, txirrin.

-Semea: Gurdiyai jartzen zioten zerbait soñuba ateatzeko, aurreko basarriyak jakin dezan nola datozen, ta /da/ ardua ta gazta haik pasaderaako...

-Prepatzen zuten.

-A, bai, e? Orduan...

-Orduan´de bazian gauzak! Beste erakuak.

-Klaro. Eta orduan baserriyetan ardua eta gazta preparatzen zan.

-Bai. Han pasatzeko. Han pasa bihar bazun.

-Pasadizuan, ardua eta gazta.

-Bai.

-Eta ze iten zan hori... karrua, gurdiya ze juten zan, baserri batetik bestera?

-Bai, bai. Etxe batetik bestea ezkontzen zian. Ezkontza igual izaten zan: mutilla hemengua eta neska horkua.

-Eta neska juten zan mutillan etxera normalian, ez?

-Bai, bai, gehiyenian.

-Gehiyenian.

-Bai.

-Eta orduan ohitura hori... lehen, ezkondu hola iten ziran lehen.

-Bai.

-Baina gero hori aldatu in zan...

-Aldatu. Ta leno boda´re nik ezautu (d)et goizian zazpitan.

-A, bai, e? Eta bazkariya?

-Ta gero bazkariya iten zuen.

-Etxian?

-Geo iten zuen gosariya. Ta geo iten zuen bazkariya! Bai.

-Orduan, gosariya... Eta egun bat baiño gehiyo irauten zuten bodak-eta ezautu dituzu?

-Bai, hoi ya galdu zan, baiño iten zuten. Txekorra-edo hil, ta /da/ hua jan arte, ala, e(g)unero.

-Egunero?

-Bai.

-Eta musika-eta: soiñu jolia-eta etxera eramaten zan?

-Bai, soiñu joliak beti izandu dia, beti, lgeldon.

-Bai?

-Bai. Soiñuakin ta...

-Holako, holako ezkontzetan, soiñu jolia jungo zan etxera, ezta?

-Bai.

-Eta jende asko juten zan, ez? Familikuak eta...

-Bai, bai.

30. Ezkontza, gurasorik gabe

- **Erref:** DON-118/060
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:40:35. **Bukatu:** 01:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ezkondu zirenean, Epeleko Etxeberrin bazkaldu zuten, Hernanin. Ezkondu, lgeldon, 11:00etan. Gonbidatu gutxi. Bost lagun. Gurasoak eta anai-arrebak ez ziren joaten.

31. Mantila buruan, elizarako

- **Erref:** DON-118/064
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:44:44. **Bukatu:** 01:45:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lezora umeak eramateko ohitura. Mantila ahaztuta joan zen, eta ez zion elizara sartzen utzi. Hondartza eta bainujantziak.

32. Arropa, nahi beste ez

- **Erref:** DON-118/069
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:50:00. **Bukatu:** 01:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Txapela. Guardasola eta zakuak. Arropa, nahi beste ez. Hanka bustiak. Lotarako nola egiten zuten: bi-hiru lagun ohe bakoitzean. Baina oraingoa ere ez zaio gustatzen.

33. Gose garaiko komeriak

- **Erref:** DON-118/071
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:52:38. **Bukatu:** 01:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendua, eskasa. Dendarik ez zegoen Igeldon.

34. Semearen eskola garaiko oroitzapenak

- **Erref:** DON-118/073
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:56:07. **Bukatu:** 01:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Semearen eskola garaiko oroitzapenak. Maisuak jo egiten zien. Txapela ipurdian jartzen zuten. Esne hautsa ematen zieten, eta derrigor hartu behar. Cara al Sol. Falangea.</p>

35. "Boladoak", ur ardota

- **Erref:** DON-118/076
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:59:45. **Bukatu:** 02:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak tabernara ezin sartu: leihotik ateratzen zieten edaria. "Boladoak", ur ardota urtuta. Sagardotegian ere emakumea kanpoan zain. Umetan, pitarra.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com